

HISTORIA EZAGUTZEKO ZENTROA  
CENTRO DE INTERPRETACIÓN HISTÓRICA



# Hiri-Ibilbidea Itinerario Urbano



Bisitarako ordutegia: asteartetik larunbatera goizeko 10etatik 14etara, eta ostegunetan eta ostiraletan goizeko 10etatik 14etara eta arratsaldeko 5etatik 7etara.

Horario de visita: de martes a sábado de 10 a 14 h. y jueves y viernes de 10 a 14h. y de 17 a 19 h.

Bisita gidatuak: Aldez aurretik hitzordua hartu behar da.

Visitas guiadas: Imprescindible cita previa.

**Argitaraldia:** 2004ko martxoan  
**Edición:** marzo 2004

**Ale kopurua:** 1.000  
**Tirada:** 1.000 ejemplares

© Ayuntamiento Ugao-Miraballes

**Realización:**  
**Egilea:** Ortzadar S.L.

**Itzulpena:**  
**Traducción:** Bakun S.L.

**Inprimaketa:**  
**Impresión:** Argia Servicios Gráficos, S.L.

**Lege-gordailua:**  
**Depósito Legal:** BI-769-04

**Agradecimientos:** Javier García y Asociación Fotográfica Zuri-Beltz



# Udiarragako Gure Amaren ermita

## Deskribapena

Estilo barroko erlijio eraikina da, eta kanpandorre hiruki garrantzitsua dauka.

## Esperimentatzea



Ermitaren harmailadiaren ondoan lorategi bat dago, eta lorategian hagin bat. Euskal kulturaren, heriotzarekin eta betiereko atsedenearekin lotzen da zuhaitz mota hori —Mediterraneoko kulturaren, berriz, altzifrea da haginaren baliokidea—.

Begiratu, usaindu, entzun adarrek eta hostoek egiten duten soinua, ukitu..., baina ez ezazu probatu. Izan ere, oso zuhaitz mota toxikoa da, eta fruituaren azala baino ezin da aprobetxatu. Historiaturrian, hagina erabili zuten arkuak eta geziak egiteko, besteak beste.

## Historia

1775. urtera arte, beste ermita bat egon zen, Udiarragako Gure Amaren aurrekoa, Udiarraga mendian, izen bereko baserriatik gertu. Lehen eraikin hura 1556tik dago dokumentatuta. 1776an, ermita berria —gaur egungo tenplua— eraikitzea erabaki zen. Horrela, errege bidetik ibiltzen ziren gaixoek eta erromesek irispide hobea izango zuten. 1780ko irailaren 10ean bukatu ziren lanak.

## Ezagutzea

Koruaren azpian, Udiarragako kofradiaren eltzea dago. Eltze horrek hau dauka idatzita: “UDYERRAGA DE 1848”.

XVII. mendetik dator kofradiaren ohitura. Irailaren 8aren hurrengo igandean, kofradiakideen arteko senidetze bazkaria egiten zen Udiarragako zelaian. Ohitura hori galdu egin zen industrializazio garaian; nolana ere, 1957an berreskuratu zen babarrun jan herriko gisa. Egun, 2.000 pertsona inguruk hartzen dute parte bazkari horretan.

## ¿Ba al dakizu...?

Ermitaren barruan, erretaula barrokoa da nabarmena. Zur polikromatuzko arkitektura lan bikaina da erretaula, eta Juan Alonso de Biadero eta Pedro Laynez maisu kantabriarrek egin zuten. Erretaulak eraikinak baino ehun urte gehiago dauka, 1680an jarri baitzen ermita zaharrean.

## Bitxikeriak

Kondaira baten arabera, Arrigorriagak eta Ugaok nahi zuten Udiarragako Amaren irudia. Piztutako bi kandelen sistemaren bidez konpondu zen liskarra. Bina kandela piztu zituzten Arrigorriagan eta Ugaon, eta non itzali azkena kandela, herri hark irabaziko zuen. Ugaokoek irabazi zuten. Hala, haranera jaitsi eta ermita bat eraiki zuten haren ohoretan.



# Ermita de Nuestra Señora de Udiarraga

## Descripción

Edificio religioso de estilo barroco con importante espadaña (campanario de forma triangular).

## Experimentar



En el jardín situado a los pies de la escalinata de la ermita encontramos un tejo, árbol asociado a la muerte y el descanso eterno en la cultura vasca (el ciprés sería su equivalente en la cultura mediterránea).

Puedes observarlo, olerlo, escuchar el sonido de sus ramas y hojas al moverse, tocar sus diferentes partes... pero no se te ocurra probarlo ya que es un árbol altamente tóxico del cual sólo se puede aprovechar el recubrimiento del fruto. Del Tejo se extraían, entre otros utensilios, los arcos y flechas en la prehistoria.

## Historia

Hasta 1775 existió en el monte de Udiarraga, cerca del caserío con su mismo nombre, una ermita anterior a la de Nuestra Señora de Udiarraga. Este primitivo edificio está documentado desde 1556. En 1776 se decide construir la ermita nueva (templo que conocemos en la actualidad) para facilitar el acceso a personas enfermas y a los peregrinos que transitaban por el camino real. La obra queda finalizada el 10 de septiembre de 1780.

## Conocer

Bajo el coro se guarda la caldera de la cofradía de Udiarraga. Posee una inscripción que dice "UDYERRAGA DE 1848".

La tradición de la cofradía data desde el siglo XVII. El domingo siguiente al ocho de septiembre se celebraba con los cofrades una comida de hermanamiento en la campa de Udiarraga. Esta tradición se pierde con la industrialización y se recupera en el año 1957 en forma de alubia popular. Actualmente en esta comida tradicional participan alrededor de 2.000 personas (comensales).

## ¿Sabías que...?

En el interior de la ermita destaca el retablo barroco, magnífica obra de arquitectura en madera policromada, realizado por los maestros cántabros Juan Alonso de Biadero y Pedro Laynez. El conjunto del retablo tiene cien años más que el edificio pues se instaló en el año 1680 en la antigua ermita.

## Curiosidades

La leyenda cuenta que la posesión de la imagen de la virgen de Udiarraga se la disputaban entre Arrigorriaga y Miraballes, solucionándose esta disputa por el sistema de las dos velas encendidas. Se encendían dos velas en cada pueblo y la que durase más tiempo con la llama encendida sería la ganadora. Ganaron los de Ugao bajándola al valle y erigiendo una ermita en su honor.



# Burdinazko Iturria

## Deskribapena

Bi iturburu txikiko iturri bat da, eta lekuko errepidearen mugan dago, askaldegiko goeraren ondoan. Auzotarren batek eskuz eta borondatez zaharberritu zuen.

## Esperimentatzea



Zure ustez, zergatik dauzka iturri horretako urak kolore hori —ura erortzen den lekuetan— eta zapore berezi hori? Iturriaren koloreak eta uraren zaporeak agerian uzten dute ur horrek burdina daukala. Ura burdinazko mineral zain batetik pasatzen delako gertatzen da hori.

## Historia

Erdi Arotik eta lehenagotik ere, burdinak oso garrantzi handia izan du Bizkaiko historiaren eta ekonomiaren bilakaeran. Triano eta Galdames mendietan, k.o. IV. mendeko erromatar txanpon batzuk aurkitu dira, airezko burdinolen zepa ondoan. Foru legeek, ordea, burdinaren merkataritza babesten zuten: ezin zen landu gabeko burdinarik merkaturatu eta, beraz, landu egin behar zen. Horrexegatik ugaritu ziren burdinola hidraulikoak gure ibai inguruetan. Ugaon ere badago industria hori; izan ere, horrelako hainbat instalazio daude udalerrri horretan. Geroago, XIX. mendean, gure burdinak mundu mailako garrantzia lortu zuen “Bessemer bihurgailuari” esker (altzairua ekoizteko sistema berri bat zen). Sistema hark funtzionatzeko, ez-fosforikoa izan behar zuen burdin mineralak; eta, hain zuzen ere, halakoxea zen Bizkaiko burdina.

## Ezagutzea

Munduko hainbat lekutan daude burdina ustiategi handiak. Dena den, Bizkaiko mendietako burdinak oso alde on garrantzitsuak zeuzkan:

- Gainazalitik gertu dago —hobietan ustiatzen da, ez meategietan—. Beraz, errazago atera daiteke.
- Erauzketa guneak itsasotik gertu daude. Horri esker, merkeago garraiatzen ziren ateratako mineralak.

## ¿Ba al dakizu...?

Ateratako mineralaren kalitateari eta kantitateari esker, gure lurraldeko burdin meategiak munduko garrantzitsuenak izatera heldu ziren. Suediako burdin meategiak zituzten lehiakide; nolahi ere, Ipar Europako negu gogorrek asko murrizten zuen aldi horretako erauzketa.

## Bitxikeriak

Europako beste herrialde batzuetan, Antzinarotik izan da ezaguna Bizkaiko burdinaren kantitatea eta kalitatea. “Hamlet” lanean, Shakespearek berak “Bilboak” deitu zien bilurrei, haien jatorria agerian jartzeko.



# Fuente de Hierro

## Descripción

Fuente con dos pequeños caños en el límite de la carretera local, al pie de la subida del merendero, restaurada de forma manual y voluntaria por algún vecino.

## Experimentar



¿A qué crees que son debidos el color (en las zonas en la que cae el agua) y el especial sabor del agua de la fuente? El color de la fuente y su sabor hace evidente la presencia de hierro en el agua. Esto es debido a la filtración del agua por una veta de mineral de hierro.

## Historia

El hierro ha sido muy importante en la evolución histórica y económica de Bizkaia; ya desde la Edad Media e incluso antes (en los montes de Triano y Galdames se han encontrado monedas romanas del siglo IV d.c. junto a escorias de ferrieras de aire). Pero el comercio del hierro estaba protegido por leyes forales, que impedían su comercialización en bruto y era necesario su tratamiento, de ahí la proliferación de ferrieras hidráulicas en torno a nuestros ríos. Miraballes no es ajena a esta industria, localizándose varias instalaciones en su término municipal.

Posteriormente, ya en el siglo XIX, nuestro hierro adquirió una importancia mundial debido al "convertidor Bessemer", un nuevo sistema de producción de acero. Para que este sistema funcionara, era necesario que el mineral de hierro fuera no fosfórico, cualidad del hierro de Bizkaia.

## Conocer

Las grandes explotaciones de hierro se encuentran repartidas por el mundo, pero el hierro de los montes de Bizkaia contaba con unas ventajas muy importantes:

- Cercanía a la superficie (se explota en canteras, no en minas) con la mayor facilidad en la extracción que esto supone
- Proximidad de los puntos de extracción al mar, lo cual abarataba el transporte de los minerales extraídos.

## ¿Sabías que...?

Las minas de hierro de nuestro territorio llegaron a ser las más importantes del mundo por la calidad y cantidad de mineral extraído. Tenían como competidor a las minas de hierro suecas, pero los rigores del invierno en el norte europeo hacían que la extracción fuese mucho menor en invierno.

## Curiosidades

La cantidad y calidad el hierro de Bizkaia ha sido conocida desde la antigüedad en otros países de Europa. De hecho, Shakespeare en la obra "Hamlet" llama "Bilbos" a los grilletes, haciendo referencia a su origen.





# Askaldegia: gure mendiak

## Deskribapena

Askaldegitik, eskualdeko mendirik garrantzitsuenetako batzuk ikus ditzakegu: Goikogane, Kamaraka, Ganekogorta, Biderdi, Untzeta eta Pastorekorta.

## Esperimentatzea



Koka al ditzakezu aipatutako mendiak? Gure mapan aurkituko duzu erantzun zuzena

## Historia edo/eta Ingurune naturala

Gure herrialdearen bereizgarri diren elementu fisikoeak, klimatikoek, geologikoeak... modelatu dute, hain zuzen, bertako geografia aberatsa. Atal honetan, mendietan jarriko dugu arreta. Hauek mugatzen dituzte mendien ezaugarriak:

- Kantauri Itsasotik gertu egoteak. Horrek erabateko eragina dauka herrialde osoan. Izan ere, Atlantikoko klima izeneko klima mota orokorrean sartzen da.
- Mendiak era askotako konposizio geologikoa izateak. Hainbat gogortasun maila-tako mendiak daude (esaterako: kareharrizkoak, tuparrizkoak eta hareharrizkoak), eta, materialen arabera, hainbat egitura sortzen dituzte: batzuk malkartsuagoak (Anboto eta Aitzgorri, adibidez –kareharrizkoak dira–); beste batzuk lauagoak (Urkiolamendi eta Gorbeia, esate baterako –hareharrizkoak dira–). Begiratu hutsean, mendi hauek ikus ditzakegu, besteak beste: Kamaraka (kareharria, tuparria) eta Ganekogorta (hareharria).

## Ezagutzea

Ikusten dugun erliebeak hiru okupazio maila edo lurralde erabilera dauzka:

1. Haran barrena. Hor dago, hain justu, herriaren gunea; herriak ibaiaren ibilbideari jarraitzen dio.
2. Erdialdea. Egutera gunek eta erlieberik leunena aprobetxatuz, hor daude baserriak. Hori horrela izanik, nekazaritzan jarduteko eta, batez ere, abere larre izateko gune egokiak dira.
3. Mendi hegalkak eta mendi gainak. Geologiaren arabera, batzuk oso aldapsuak dira, eta beste batzuk, berriz, lauagoak. Aldapek aukera ematen duten lekuetan, basoa ustiatzen da

## ¿Ba al dakizu...?

Goikogane mendiaren gunerik aldapsuenean ikusten den landaretza orbana artadi bat da

## Bitxikeriak

Ganekogorta mendiak 998 metroko altuera du, eta, garai batean, harri pilo txiki bat bildu zen mendiak 1.000 metroko altuera "ofiziala" izan zezan.



# El Merendero: nuestros montes

## Descripción

Desde el merendero podemos observar alguno de los montes más importantes de la comarca, como son Goikogane, Kamaraka, Ganekogorta, Biderdi, Untzeta y Pastorekorta.

## Experimentar



¿Puedes ubicar cada uno de los montes citados? La respuesta correcta la encontrarás en nuestro mapa.

## Historia y/o Medio Natural

Los diferentes elementos físicos, climáticos, geológicos, etc. que caracterizan nuestro país han modelado su rica estructura geográfica. En este apartado nos centraremos en los montes, cuyas características vienen determinadas por:

- La proximidad del Mar Cantábrico, que influye decisivamente en todo el país, pues se incluye en la Unidad Climática general denominada Clima atlántico.
- La diversa composición geológica de los montes, de distinta dureza (calizas, margas, areniscas....) que originan distintas formaciones, más quebradas (cordal del Anboto o Aitzgorri de origen calizo) o más suaves (Urkiolamendi o Gorbeia, de areniscas) en función de los materiales. Como ejemplos que vemos a simple vista tenemos el Kamaraka (caliza, margas) y el Ganekogorta (arenisca).

## Conocer

El relieve que observamos frente a nosotros tiene tres niveles de ocupación o usos del territorio.

1. El fondo del valle, donde se ubica el núcleo urbano siguiendo el recorrido del río.
2. A media altura el lugar donde se asientan los caseríos aprovechando las zonas de solana y el relieve más suave, pudiéndose dedicar a labores agrícolas y sobre todo a los pastos ganaderos.
3. Las laderas y picos de los montes, más o menos abruptos dependiendo de la geología. Es un espacio destinado a la explotación forestal donde la pendiente lo permite.

## ¿Sabías que...?

Que la mancha de vegetación que se observa en la zona más abrupta del monte Goikogane es un encinar.

## Curiosidades

El monte Ganekogorta tiene 998 metros de altitud y en su momento se hizo un pequeño montón de piedras para que la altura "oficial" fuera de 1.000 metros.





Haritza

# Askaldegia: gure zuhaitzak

## Deskribapena

Haran hauetako paisaian, bi elementu nabarmentzen dira: alde batetik, labore eta zelai beti berdeak; bestetik, berriz, basoa berritzeko sartutako pinudi ilunak. Kareharia azaleratzen den leku batzuetan, arteak sartu ziren (Goikogane); harizti txikiak eta hostozabalen baso mistoak ere ikus daitezke tarteka –landaretza nagusia izan zenaren lekuko—.

## Esperimentatzea



Ingurune honetan, hainbat motatako zuhaitzak daude: haritza, artea, urkia, pinua eta hurritza. Ba al dakizu zein den zein?

## Historia edo/eta Ingurune naturala

Eskualde honetan, erliebea oso aldapatsua da, eta aniztasun geologiko handia dago. Hori horrela izanik, ezin da landaretza homogeneorik espero. Dena den, harizti lur gisa har liteke haran hauetako landaretza: bertako basoek, sasitzak eta belarrak ezaugarri komun batzuk dituzte eta landaretza paisaia berezia sortzen dute. Haritzarekin batera, beste zuhaitz mota batzuk ere badaude, esate baterako: lizarra, gaztainondoa, hurritza, astigarra eta ezkia. Lurra lehorra den lekuetan, artadi txikiak daude. Gune degradatuetan, berriz, otadiak –erraz bereiz daitezke lore horiei eta adar arantzatsuei esker—.

## Ezagutzea

Haritza euskal herriaren kultur ondarearen parte da, askatasunaren ikur gisa. Artearen zura oso gogorra da, eta erabilera asko ditu zurgintzan, upelgintzan eta ebanisterian. Hurritza ez da enbor bakarreko enborra, adar asko baizik. Adar horiek makilak egiteko erabiltzen dira, maiz.

## ¿Ba al dakizu...?

Urkiak erabilera asko zituen artzaintzat: azala bordetarako teila moduan erabiltzen zen, enborrarekin esnea biltzeko “kaikuak” egiten ziren, eta, erraz bereizteko moduko azal zuria dutela eta, lursailak mugatzeko landatzen ziren.

## Bitxikeriak

Izenak adierazten duen bezala, intsinis, radiata edo Monterreyko pinua Monterreyko eskualdekoa da izatez, hau da, Kaliforniako kostaldekoa.



Roble

# El Merendero: nuestros árboles

## Descripción

En el paisaje de estos valles destacan los cultivos y prados siempre verdes, y oscuros pinares de repoblación. En algunos afloramientos calizos se instala el encinar (Goikogane), y de manera dispersa pueden verse pequeños robledales y bosques mixtos frondosos, testigos de la que fue la vegetación preponderante.

## Experimentar



En este entorno hay varios ejemplares diferentes: roble, encina, abedul, pino, avellano. ¿Sabes quién es quién?

## Historia y/o Medio Natural

En una comarca con el relieve tan accidentado y con gran variedad geológica, no cabe esperar una homogeneidad en la vegetación. De todas formas la de estos valles se podría englobar en el dominio de los robles; un conjunto de bosques, matorrales y hierbas que presentan unas características comunes y dan lugar a un paisaje vegetal característico. Acompañando al roble encontraríamos ejemplares de fresno, castaño, avellano, arce campestre, tilo...

En zonas de sequedad del terreno aparecerán pequeños encinares y en zonas degradadas los argomales, fácilmente distinguibles por las flores amarillas y las ramas espinosas.

## Conocer

El roble es una especie que forma parte del acervo cultural del pueblo vasco como el símbolo de las libertades.

La madera de la encina es muy dura y tiene numerosas aplicaciones en carpintería, tonelería y ebanistería.

El avellano se caracteriza por no tener un solo tronco sino multitud de ramas, muy utilizadas para hacer varas y makilas.

## ¿Sabías que...?

El abedul tenía numerosas utilidades para los pastores: la corteza se utilizaba a modo de tejas para las bordas, con el tronco se hacían los “Kaikus” para recoger la leche y debido a su corteza blanca fácilmente distinguible, se plantaban para delimitar las fincas.

## Curiosidades

El pino insigne, radiata o de Monterrey es originario, tal y como su nombre indica, de la región de Monterrey, ubicada en las costas californianas.





# Nerbioi ibai Ugaon

## Deskribapena

Nerbioi ibai Sierra Salvadan jaiotzen da, eta Peña Nervinatik erorketa askean egin-dako 100 metrotik gorako ur-jauzi ikusgarria du.

Gutxi gorabehera 48 kilometro egin ondoren, Ibaizabal ibaiarekin batzen da Basaurin. Aurretik, ordea, beste udalerririk batzuetatik pasatzen da. Hauek dira udalerririk: Kuartango, Amurrio, Aiala eta Laudio, Araban; Urduña, Arakaldo, Arrankudiaga, Ugao, Arrigorriaga, Zaratamo, Basauri eta Etxebarri, berriz, Bizkaian.

## Esperimentatzea



Mendi gainetan eta mendi hegaletan soilik arreta jarritz, gai al zara ibai nondik pasatzen den jakiteko?

## Historia edo/eta Ingurune naturala

Kantauri itsasora isurtzen duten ibaiak ezaugarri bereziak dituzte: alde batetik, emaria konstantea da gutxi gorabehera; bestetik, ibaiaren ibilbideak maila desberdintasun azkarrak ditu. Ibaiak hainbat ekonomia jardueraren euskarri izan dira historian zehar; esate baterako, alea xehatzeko errota egin ziren leku askotan, bai eta burdinolak ere (duela gutxi, zentral hidroelektriko txikiak ere egin dituzte).

Dena den, bi eragilek kalte larria egin diete gure ibaien ekosistemei: batetik, geroago gertatutako industria bilakaera handiak (zenbait enpresa ibilguen gainean kokatu ziren, ura hartzeko eta, askotan, hondakinak ibaira zuzenean —kontrolik gabe— isurtzeko); bestetik, horrekin batera gertatutako demografia eztanda. Nahikoa da Ibaizabal, Nerbioi (gure adibidea), Deba, Urola edo Oria ibaien ibilbideari begiratu egitea, erdiko eta beheko zatiei batez ere.

## Ezagutzea

Gure lurraldeko orografia aldapatsuak giza okupazioa zehaztu du. Komunikatzeko bide naturalak eta gunerik lauenak aprobetxatuz, gizakiak haran barrenetan bildu dira askotan. Hori dela eta, herri asko ibaiari jarraituz sortu dira (hori izan da zabaltzeko modu bakarra). Beraz, itxura luzanga hartu dute. Ugao bera da horren adibide garbia.

## ¿Ba al dakizu...?

1983ko uholdeez geroztik, lan handiak egin dira ibaiaren ibilgu naturala aldatzeko. Lan horien ondorioz, ibai hemendik zeharkatzen zuen zubi zaharra (beste hau duela gutxi egin da) egungo futbol zelaiaren erdian egongo litzateke.

## Bitxikeriak

Bilboko Itsasadarrari Nerbioi Itsasadarra deitu ohi zaio normalean, nahiz eta onartutako izen ofiziala Ibaizabal Itsadarra izan den. Bestela esanda: zein da zeinen ibaiadarra? Nerbioi Ibaizabalena ala alderantziz?



# El río Nervión a su paso por Ugao-Miraballes

## Descripción

El Nervión nace en la Sierra Salvada con un espectacular salto de agua de más de 100 metros de caída libre desde Peña Nervina.

Después de recorrer aproximadamente 48 Km confluye con el Ibaizabal a la altura de Basauri, pasando anteriormente por los municipios de Kuartango, Amurrio, Aiala y Llodio en Álava y Orduña, Arakaldo, Arrankudiaga, Ugao-Miraballes, Arrigorriaga, Zaratamo, Basauri y Etxebarri en Bizkaia.

## Experimentar



¿Eres capaz de descubrir por dónde pasa el río fijándote sólo en las cimas de los montes y sus laderas?

## Historia

Las características de los ríos de la vertiente cantábrica en la que nos situamos, (caudal más o menos constante y rápido desnivel en el curso del río), ha hecho que de forma histórica los ríos se hayan utilizado como soporte de diferentes actividades económicas tales como molinos para grano y ferrerías en muchos de sus tramos (en época reciente aparecen también pequeñas centrales hidroeléctricas).

La fuerte evolución industrial producida posteriormente (empresas ubicadas encima de los cauces para poder proveerse de agua y en muchos casos para poder verter sin control directamente al río) y la explosión demográfica paralela han dañado seriamente nuestros ecosistemas fluviales. Sólo es necesario echar un vistazo a los lugares por donde discurren (sobre todo en los tramos medio y bajo) los ríos Ibaizabal, Nervión (nuestro caso), Deba, Urola o el Oria.

## Conocer

La accidentada orografía de nuestro Territorio ha definido la ocupación humana, desarrollándose en muchas ocasiones en el fondo de los valles, aprovechando las vías naturales de comunicación y las zonas más llanas. Debido a ello, muchos de los pueblos se han creado siguiendo el río (única manera de expansión) adoptando formas alargadas. Claro ejemplo de ello es Ugao-Miraballes.

## ¿Sabías que...?

A raíz de las inundaciones de 1983 se realiza una gran obra para variar el cauce natural del río, hasta el punto de que el antiguo puente que cruzaba el río por esta parte (el que pasaremos es de reciente construcción) se encontraría en medio del actual campo de fútbol.

## Curiosidades

La Ría de Bilbao es conocida habitualmente como Ría del Nervión si bien el nombre oficial aceptado ha llegado a ser Ría del Ibaizabal. Dicho de otra manera: ¿quién es afluente de quién? ¿El Nervión del Ibaizabal o viceversa?



# Ibaia ekosistema gisa

## Deskribapena

Gaur egun, aldatu egin da ibaiaren ideia: jada ez da guk aprobetxatzeko ura daraman ubide bat. Aitzitik, elkarren artean estu lotuta dauden elementu biziak —landareak eta animaliak— eta bizigabeen —harriak, hondarra, ura, tenperatura, eguzkia...— multzo bat da; elementu horietako bakar baten edozein aldaketak multzo osoari eragiten dio.

## Esperimentatzea



Begiratu ibaiari bihurgunetik autopistako zubia pasatu arte. Zure ustez, normala al da ibaia erabat zuzena izatea? Argi antzematen al da gizakiak esku hartu duela ibaiaren ibilguan?

## Historia edo/eta Ingurune naturala

Hauek mugatzen dituzte gure ibaien ezaugarriak —ibilbide laburra eta emari egonkorra—:

- Klima atlantikoak —urtaroen arteko aldaketa txikia eta batez besteko plubiositate handia urtean zehar—.
- Kantabriar mendikatea —ibaien jaiolekuak— eta ibaiaren bokalea gertu egoteak.

Baldintza on horiek ibaiari lotutako basoa garatzen laguntzen dute. Ibarbaso edo ubide baso deitzen zaio baso mota horri, zuhaitzen eta zuhaixken adaburuek ganga moduan estal baitezakete ibaia. Zumearekin, astigarrarekin... batera, haltza da baso mota horretako zuhaitz nagusia.

Giza kokalekuak direla eta, beti aldatu izan da ibaien ingurune naturala. Gainera, uholdeei aurrea hartzeko, bideratze lan asko egin dira azkenaldian, horietako zenbait inpaktu handikoak. Hemen, esate baterako, harri lubetaz bideratu da ibaia —kareharritzko harri handiz—.

## Ezagutzea

Landaretza oso garrantzitsua da ibaietan. Besteak beste, animaliak babesteko eta elikatzeko balio du, higadura eragozten du, ingurune baldintzei eusten die, tenperatura erregulatzen du eta ur goraldietatik babesten du.

## ¿Ba al dakizu...?

Arrainek uretan disolbatutako oxigenoa arnasten dute. Hori dela eta dira garrantzitsuak ibaietan urlasterrak eta ur-jauziak; izan ere, airea eta ura nahasten laguntzen dute. Tenperatura ere garrantzitsua da: tenperatura zenbat eta altuagoa izan, orduan eta oxigeno gutxiago disolbatuko da. Horregatik hiltzen dira arrain batzuk udan ur gutxi duten eta eguzkiak jotzen dituen ibai guneetan

## Bitxikeriak

Ubidean, presa txiki batzuk ikus ditzakegu tarteka. Presa horiek ez dute uraren maila gainditzten, eta, nahiz eta aurretik pixka bat cutsi, ura aske pasatzeko aukera ematen dute.



# El río como ecosistema

## Descripción

Hoy en día ha cambiado el concepto de río; ya no es un canal que lleva agua para nuestro aprovechamiento, sino un compendio de elementos vivos (plantas, animales) y elementos inanimados (rocas, arena, agua, temperatura, sol...) que están íntimamente relacionados y en el que cualquier variación sobre uno de los elementos cambia el conjunto.

## Experimentar



Mira el río desde la curva hasta pasado el puente de la autopista ¿crees que es normal que el río sea totalmente recto? ¿Se nota claramente la intervención humana en el cauce?

## Historia y/o Medio Natural

Las características de nuestros ríos, recorrido corto y caudal estable, vienen determinadas por:

- Clima atlántico (pocas variaciones estacionales y una media de pluviosidad notable a lo largo del año).
- Cercanía entre la cordillera cantábrica (nacimiento de los ríos) y la desembocadura.

Estas buenas condiciones favorecen el desarrollo de un bosque asociado al río llamado bosque de ribera o bosque de galería debido a que la copa de los árboles y arbustos llegar a cubrir el río en forma de bóveda. El árbol protagonista de este tipo de bosque es el aliso, acompañado de sauces, arces...

Pero este entorno natural del río ha sido alterado de manera histórica debido a los asentamientos humanos; incluso últimamente, con el objetivo de prevenir avenidas, se han realizado numerosas obras de encauzamiento más o menos impactantes como el caso que observamos, donde se ha producido un encauzamiento mediante escolleira (grandes piedras de roca caliza).

## Conocer

La cobertura vegetal es muy importante en el río por diferentes motivos; entre ellos: sirve de refugio y sustento a los animales, combate la erosión, mantiene las condiciones ambientales, aporta nutrientes, regula la temperatura y protege de las crecidas.

## ¿Sabías que...?

Que los peces respiran el oxígeno disuelto en el agua; por ello son importantes las corrientes y cascadas en un río: ya que favorecen la mezcla de aire y agua. También la temperatura es importante: a mayor temperatura, menor disolución de oxígeno, por eso en verano se pueden dar muertes de peces en zonas de río con poco agua y expuesta al sol.

## Curiosidades

En el cauce podemos observar cada cierta distancia una serie de obstáculos llamados "azudes": palabra de origen árabe que hace referencia a pequeñas presas que no sobrepasan el nivel del agua permitiendo su circulación libre con una pequeña retención previa.



# Hiru tutuko iturria

## Deskribapena

Iturriaren egiturak oinarri laukia eta lau atal dauzka. Horieta erortzen da piramide formako iturriko ura. Lau ataletako bat abereei edaten emateko aska bat da. Girlandaz eta arrosa lore begiz apainduta dago. Harrizko bola bat da iturriaren erre-matea.

## Esperimentatzea



Ukitu harrian zizelkatutako erliebeak eta begiratu uraren temperaturari. Behatu iturria alde guztietatik. Entzun urak iturriko putzuetara erortzean egiten duen soinua. Dastatu iturriko ura eta identifikatu zaporea.

## Historia

Hiru tutuko iturria duela 200 urte baino gehiago egin zuten. Lehenbizikoa Yturburuk diseinatu zuen eta 1779an egin zen. Iturri hartatik, ordea, hondatutako pilote bat baino ez da geratzen. Gaur egungoa estilo neoklasikokoa da eta 1858 inguruan egin zuten. Iturriak Goikiri mendiko ur minerala jasotzen zuen, eta, beraz, oso ur preziatua zen. 1983ko uholdeaz geroztik, iturria udal sarera lotuta dago.

## Ezagutzea

1950. urtean jarri zen ura etxeetan. Urte hartara arte, ordea, Hiru tutuko iturritik lortzen zen, nagusiki, kontsumorako eta beste zeregin batzuetarako behar zen ura. Iturri hartako ura kalitate onekotzat jotzen zen. Normalean, etxeko txikiak biltzen zuten ura, balde beteak eramanez.

## ¿Ba al dakizu...?

XX. mendearen hasieratik, “bolari bira bat emateko” ohitura dago. Bolari bira emanez bukatzen ziren Kofradiaren jaiak. Bi esanahi izan zitzakeen horrek: alde batetik, urtearen bukaera laborantza, zikloa kontuan hartuta; bestetik, jaien bukaera, bertako bizitzaren ardatz dela kontuan hartuta. Azken finean, eguneroko bizitzari berriro heltzea zen bolari bira ematea. 40ko hamarkadan, auzotar bati bola erori zitzaion, eta debekatu egin zen ekintza hura. 60ko hamarkadan, ordea, ohitura berreskuratu zen —jada burdin zati batek eusten zion bolari—. 1970 inguruan, jaien programan sartu zen ekintza hura. Horrela, jai-batzordeak aukeratutako auzotar batek ematen dio bira bolari; horretarako, herriaren onerako ekintzaren bat egin behar du urtean zehar.

## Bitxikeriak

Iturriari azkena ematen dion bolak 85 kiloko pisua du.



# Fuente de los Tres Caños

## Descripción

La estructura con base cuadrada posee cuatro pozos, a los que cae el agua del surtidor troncopiramidal, siendo uno de ellos un aska para abreviar el ganado. La decoración es a base de guirnaldas y capullos de rosa. El remate de la fuente es una bola de piedra.

## Experimentar



Toca los relieves tallados sobre la piedra de la fuente y comprueba la temperatura del agua. Observa la fuente desde las distintas perspectivas. Escucha el sonido del agua al caer sobre los pozos de la fuente. Cata el agua de la fuente e identifica su sabor.

## Historia

La Fuente de los Tres Caños fue construida hace más de 200 años. La primitiva fue diseñada por Yturburu y realizada en 1779. De aquella fuente hoy en día únicamente queda un pilote deteriorado. La actual, de estilo neoclásico, fue construida hacia 1858. La fuente recibía el agua mineral del monte Goicurua (Goikiri) siendo un agua muy apreciada. Desde la riada de 1983 la fuente está conectada a la red municipal.

## Conocer

Hasta 1950, año en el que las casas disponían de agua corriente, la necesaria para el consumo y para otras tareas se conseguía principalmente de la fuente de los tres caños, cuya agua era considerada de gran calidad. Esta labor de recogida de agua la realizaban generalmente niños y niñas que cargaban con los baldes llenos.

## ¿Sabías que...?

Desde comienzos del siglo XX, existe la tradición de “la vuelta a la bola”: las fiestas de la Cofradía terminaban con la vuelta a la bola, que podía significar bien el fin del año como ciclo agrícola o bien el fin de las fiestas como eje de la vida local; la vuelta a la bola era un volver a empezar la vida cotidiana. En los años 40 se prohíbe este acto al caérsele la bola a un vecino. En los años 60 se recupera la tradición ya con la bola sujeta por un hierro. Hacia 1970, se incluye este acto dentro del programa de fiestas y la vuelta a la bola la realiza un vecino, designado por la comisión de fiestas, que durante el año haya realizado alguna buena acción en bien del pueblo.

## Curiosidades

El peso de la bola que remata la fuente es de 85 kilos.





# San Bartolome eliza

## Deskribapena

Eliza honek nabe bat, kanpandorrea eta atari estalia dauzka.

## Esperimentatzea



Begiratu kanpandorreari eta bilatu hiru atalen arteko desberdintasunak.

Sartu eta entzun nola itzultzen den hormetatik txalo baten soinua.

Ukitu eta konparatu testurak: harlanduena, zurezko zutabeena eta lurraren erliebearena.

## Historia

Herria baino geroago egin zuten; izan ere, ez da inolako aipamenik egiten Ugao sortzeko Herri Gutunean.

- *XV. mendea.* Garai horretakoak dira arkitektura aztarna zaharrenak.
- *XVI. mendea* (1563). Erretaula eta ataria eraiki zituzten.
- *XVII. mendea.* Erabat berregin zuten kanpandorrearen aldeko erdia, eta obrak egin zituzten tenpluaren erditik aldare nagusira bitartean. Behin betiko akabera eman zioten kanpandorreari eta koruari, eta atariko harbidea eta elizaren alboak egin zituzten.
- *XVIII. mendea.* San Bartolome elizak gangarik gabeko nabe bat zeukan –XIX. mendean eraiki zen–.
- *XIX. mendea.* Hilerraren zorua harriz estali eta beirak jarri zituzten nabe nagusian.
- *XX. mendea.* Korua handitzeko lanak egin zituzten, eta, gerra zibilaren ondoren, hainbat gauza berregin: gangak, erretaulak, margolanak... 1983an egin zen azken obra garrantzitsua, uholdeen ondorioak konpontzeko.

## Ezagutzea

Elizak bost ataleko nabe bat dauka, eta gurutzeria ganga bidez dago estalita. Korua dauka, eta arkupea, zabalera osoan erdi puntuko baoz itxita. Oro har, harlangaitza erabili zen eliza egiteko; ez, ordea, baoetan eta bazterretan –kareharritzko harlandu erregularra erabili zen horietan–.

## ¿Ba al dakizu...?

Barruan, erretaula nagusia da nabarmena. Hiru kale, hiru atal eta teilatupea dauzka.

## Bitxikeriak

San Bartolome eguna (abuztuaren 24a) bat zetorren Joan infantearen urtebetetzearekin, gerora Gaztelako errege izango zenaren urtebetetzearekin. Datu horrek ere berretsi egiten du eliza herria baino geroago sortu zela.



# Iglesia de San Bartolomé

## Descripción

Iglesia de una nave con campanario y pórtico cubierto.

## Experimentar



Observa el campanario y busca las diferencias entre cada uno de sus tres cuerpos. Entra en la iglesia y escucha cómo rebota en las paredes el sonido de una palmada. Toca y compara las diferentes texturas de los sillares de piedra, las columnas de madera y el relieve del suelo de la iglesia.

## Historia

Su creación es posterior a la fundación de la villa, ya que no aparece mención alguna en la Carta Puebla de fundación de Ugao-Miraballes.

- *Siglo XV*. De esta fecha datan los restos arquitectónicos más antiguos.
- *Siglo XVI* (1563). Construcción del retablo y el pórtico.
- *Siglo XVII*. Reconstrucción completa de la mitad del cuerpo hacia el campanario, y realización de una obra desde la mitad del templo hacia el altar mayor. Remate definitivo del campanario y el coro, se realizan la calzada del pórtico y los lados de la iglesia.
- *Siglo XVIII*. La iglesia de San Bartolomé constaba de una nave sin bóveda que se construye ya en el siglo XIX.
- *Siglo XIX*. Se lleva a cabo también el empedrado de su cementerio y el acristalamiento de la nave mayor.
- *Siglo XX*. Se ejecutan las obras de ampliación del coro y después de la guerra civil se reconstruyen bóvedas, retablos, pinturas, etc. La última obra importante se realiza en 1983 a consecuencia de las inundaciones.

## Conocer

Iglesia de una nave con cinco tramos, cubierta mediante bóvedas de crucería. Posee coro a los pies y porche cerrado a todo el ancho con vanos de medio punto. El material de construcción es mampostería, a excepción de vanos y esquinas, en los que se utiliza la sillería caliza regular.

## ¿Sabías que...?

En el interior destaca el retablo mayor de tipo casillero, con tres calles, tres cuerpos y ático.

## Curiosidades

El día de San Bartolomé (24 de agosto) coincidía con el cumpleaños del infante Don Juan, futuro rey de Castilla (siendo éste otro dato que ratifica que esta iglesia es posterior a la fundación de la villa).

**B**izkaiko udalerrri hau Arratia-Nerbioi eskualdean dago; 4,54 km<sup>2</sup> ditu eta 75 metrora dago itsas mailaren gainetik.

1375eko martxoaren 4an, Bizkaiko jaun Don Joaneke Hiribildu berri bat sortu zuen Ugao deitzen zitzaion lekuan, Villanueva de Miraballes izenez (Miraballeseko Hiriberri), Zeberio eskualdeko “gizon onek” eskatuta, hau da, bai aitoren semeek (“hijosdalgos” edo “hidalgos”) eta bai nekazariak eskatuta.

Hiribildua Gaztelaren eta Bilboren arteko Errege Bidean kokatzen da, Nerbioi ibaiak zabalduko bide natural honen bidez komunikatzen zirelarik Gaztela eta Kantauri itsasoa, Bilboko eta Bermeoko kaien bidez; era honetan ematen zitzaion irteera penintsulako barne lurraldeetako merkantziei. Pribilegiozko egoera honek eragin zuen Hiribilduak bidaiari eta merkatarien beharrei erantzuna ematea, bai segurtasun aldetik zein atsedean hartzeko (ostatuak) eta hornikuntzarako (errementeria...).

Hiribilduaren sorreraren 625. urteurrenaren ospakizunekin batera, Ugao-Miraballeseko Historia Ezagutzeko Zentroa inauguratzen da, non sorrera gairira bisitaldia birsortzen den, Bizkaiko hiribilduen arlo ezberdinak aztertzen direlarik eta eskualdearen ibilbide historikoa burutzen delarik (aztarna arkeologikoetatik industrializaziora).

Nolanahi ere, Ugaoren atzoko eta gaurko garrantzia ezagutu gura badugu, kontutan izan behar dugu hiribilduaren kokapen estrategikoa, bere inguruagatik eta topatu daitezkeen kultural eta ondare osagaiengatik definituta.

Bere berezitasun gehiago ezagutzeko aukera izanogo dugu leku hauek bisitatuz udalaren erdialdetik diseinatutako ibilbidearen bidez, zeinaren hasiera eta bukaera Historia Ezagutzeko Zentroan dagoen.

**U**gao-Miraballes se sitúa en la comarca de Arratia-Nervión, con una extensión de 4,54 km<sup>2</sup> y una altitud media de 75 m sobre el nivel del mar.

El origen del municipio se remonta al 4 de marzo de 1375, cuando el Infante Don Juan, Señor de Vizcaya y futuro rey Juan I de Castilla, funda en el lugar de Ugao una villa llamada Villanueva de Miraballes a petición de los “hombres buenos”, hidalgos y labradores de la comarca Ceberiana (Zeberio).

Esta villa se situaba en el Camino Real, ruta natural abierta por el Nervión que comunicaba Castilla con el mar Cantábrico a través de los puertos de Bilbao o Bermeo; de esta forma se daba salida a las mercancías del interior de la península. Esta situación privilegiada hizo que la villa diera respuesta a las necesidades de los viajeros y mercaderes, tanto de seguridad como de descanso (posadas) y abastecimiento (herrerías...).

Con la celebración del 625 aniversario de la fundación de la villa se inaugura el Centro de Interpretación Histórica de Ugao-Miraballes, donde se recrea una visita a esta época fundacional, analizando diferentes aspectos de las villas de Bizkaia mientras se realiza un recorrido histórico por la comarca (desde los restos arqueológicos hasta la industrialización).

En cualquier caso, si pretendemos conocer la importancia pasada y actual de Ugao, debemos tener en cuenta la estratégica ubicación de la villa, definida por el entorno donde se localiza y por la presencia de determinados elementos culturales y patrimoniales.

Podremos conocer un poco más su singularidad si visitamos estos lugares mediante un itinerario diseñado por el centro del municipio, que tiene su inicio y final en el Centro de interpretación Histórica.

## HISTORIA EZAGUTZEKO ZENTROA CENTRO DE INTERPRETACIÓN HISTÓRICA



Palacio Jane jauregia, Udiarraaga kalea 38, 48490 Ugao-Miraballes (Bizkaia)  
Tel. 94 648 07 04 • Fax 94 648 18 93 (Udaletxea/Ayuntamiento)  
kultur-etxea.ugao@bizkaia.org